

Santi Eskibel Larrañaga

*Eskoriatza, Gipuzkoa
(1943)*

Aurkibidea

Biografia



Lete baserrian jaio zen 1943an. Bost urte zituela ama hil zitzaien eta bederatzi anai-arreba amarik gabe geratu ziren. Urte batzuetara aita berriz ezkondu zen eta une batez 16 pertsona bizi izatera iritsi ziren Lete baserrian. Mutikotan artzain ibiltzen zen mendian, baita 14-15 urterekin Tesa lantegian hasi eta gero ere. 22 urterekin Gasteizera joan zen soldadutza egitera. Handik itzultitakoan, Tesan jarraitu zuen lanean. Leintz Gatzagako emaztearekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ESK-040

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Eskibel, Onintza
- **Data:** 2003-01-01
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. 16 lagun Lete baserrian bizitzen

- **Erref:** ESK-040/001
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Eskoriatzako Lete baserrikoa. Bost urte zituela ama hil zitzaien, erditzean, eta jaio berriarekin bederatzi anai-arreba geratu ziren; zaharrenak 15 urte inguru izango zituen. Aita alargun batekin ezkondu zen handik pare bat urtera eta, hura seme-alabekin etorri zenean, etxean 16 lagun bizi izan ziren, izeba bat eta amandrea ere bertan bizi baitziren. Ez zen erraza denentzat jatekoa izatea; artoa nahikoa izaten zuten, baina ogirik ez.</p>

2. Lehenbizi plazako eskolan eta gero marianistetan

- **Erref:** ESK-040/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:04:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

5 urterekin plazako Arana eskolara hasi zen eta bederatzirekin marianistetara pasa zen. Bi urte egin zituen bertan. Eskolatik baserrirako bidea txirringolarekin jolasean egiten zuen batzuetan.

3. Anai-arrebak neskame/morroï etxetik kanpora

- **Erref:** ESK-040/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Etxean ez zegoen denentzat janaririk eta anai-arreba batzuk neskame/morroï joan ziren. Bakoitza nora joan zen azaltzen du.

4. Eskolara joan beharrean baserriko lanetan laguntzen

- **Erref:** ESK-040/004
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:07:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

11 urterekin fraideetara pasa zen eta 14 urtera arte ibili zen bertan. Baina beti ez zen joaten eskolara, batzuetan etxean geratu behar izaten zen baserriko lanetan laguntzen. "Intxaurren" ibiltzea zer den azaltzen du.

5. 10 urterekin, mendira artzain

- **Erref:** ESK-040/005
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:07:35. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

10 urterekin joan zen lehen aldiz mendira artzain. Orduan gertatutako anekdota bat kontatzen du: ardiak txabolara ekarri eta bere aurretik sartu zituen; bera sartzerako, afaria jan zioten. Jotera egiten zuen ahari gaizto bat ere izan omen zuten, jokorako prestatuta zegoena.

6. Lantegitik irten eta mendira ardiak biltzera

- **Erref:** ESK-040/006
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>14-15 urterekin Tesa lantegian hasi zen lanean. Lantegian zazpiak arte lan egiten zuten normalean. Bera ordubete lehenago irteten zen ardiak bildu behar izaten zituelako. Seietan lanetik irten, baserrira joan, marmita hartu eta Kurtzebarrira joaten zen. Han txabola bat zuten. Ardiak txabola ondora ekarri, jaitzi, zerbait afaldu eta bertan geratzen zen lotan. Goizean esneak hartuta jaisten zen behera. Etxean gosalduta eta zortzietarako lantegira joaten zen.</p>

7. Iratara mendira gurdia hartuta

- **Erref:** ESK-040/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Iratara gurdiaekin joaten ziren mendira eta 3-4 ordu egiten zituzten bidean. Nola egiten zuten iratako lana.

8. Zortzi mutil gela berean lotan, binaka

- **Erref:** ESK-040/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Garai batean 16 lagun bizi izan ziren etxean: eurak 9 anai-arreba, aita, amaordea, 3 anaiorde, amandrea eta izeba. Zortzi mutilek lo egiten zuten gela berean, lau ohetan, binaka.

9. Bera ardien arduradun

- **Erref:** ESK-040/009
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Berak zuen ardien ardura, anaiak ez zekitelako ardiak biltzen eta ardiek ez zituztelako ezagutzen. 18 urte inguru zituela ardiak kendu zituzten.

10. Soldadutza Gasteizen 13 hilabetez

- **Erref:** ESK-040/010
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>1965ean Gasteizera joan zen soldadutza egitera. Zozketan Afrikara joatea tokatu zitzaion, baina legeak zioen hiru anaia nagusiago izanez gero, norberak aukeratu zezakeela nora joan. 13 hilabete egin zituen. Soldadutzan zegoela apendizeko ebakuntza egin zioten eta hilabete egin zuen Gasteizko ospitale militarrean. Bera Arakan egon zenean artean ez zegoen barrakoirik eta kanpin

dendetan egoten ziren. Berak anaia bizi zuen Gasteizen hara ezkondata eta sarritan baimena izaten zuen haren etxera joateko lotara.</p>

11. Soldadutzatik itzuli eta berriz lantegira

- **Erref:** ESK-040/011
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>22 urterekin joan zen soldadutzara. Bera soldadutzan zegoen bitartean gurasoak baseritik kalera jaitsi ziren bizitzera. Soldadutzatik itzuli eta Tesa lantegian jarraitu zuen lanean eta bi urte ingurura gero bere emaztea izango zena ezagutu zuen.</p>

12. Zazpi urterekin komunioa Eskoriatzan

- **Erref:** ESK-040/015
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:29:35. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Zazpi urterekin egin zuen komunioa. Euren baserriari hala egokitzen zitzaiolako klean egin zuen jaunartzea. Bideak lokatzaz beterik egoten zirenez, beheragoko baserri bateraino arropa zaharrekin jaitsi eta han aldatzen ziren.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com